



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Ekainaren 25eko 63/85 DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko Autonomia Erkidegoako Erakunde Erkidegoei Adingabeen Babesaren, Zaintzaren eta Birgizartearen arloko zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa (E.H.A.A., 85-7-18ko eranskina).

Gobernuak, bestalde, maiatzaren 14eko 100/1982 Dekretuaren bidez, adin gutxikoen babes eta tutoretza eta birgizarteratzearen arloko eskumenaren erabilpena Sanitate eta Gizarte Segurantza Sailari esleitu dio, eskumen hori gizarte zerbitzuen arloko dela uste izanik. Halaber, "Gizarte Zerbitzu"ei buruzko maiatzaren 20ko 6/82 Legearen 3. artikulua lehenespena duten iharduketarloan artean ondokoa aipatu du: "haur eta gazteen ongizatea sustatzea, famili giro egokia ez badute batipat, gizartera osotoro molda daitezten".

Bestalde, Autonomi Elkartearen Erakunde Amankomunen eta haren Lurralde Historikoen Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen zazpigarren artikulua c) 1 eta 2. puntuak foru organo horiei iratxiki diete beren lurraldean erakunde amankomunek gizarte urgazpen eta haur eta gazteei buruzko politika arloetan duten legeria betearaztea, erakundeok egin ditzaketen ekintzen kalterik gabe.

Beraz, Legearen lehenengo xedapen iragankorrean ezarrita

dagoen batzorde mistoak aipatu eskumen horiei atxikitako zerbitzu, pertsonal, ondasun, eskubide eta betebeharrak zehaztu ditu, Autonomi Elkarteko erakunde amankomunetatik Bizkaiko Lurralde Historikora zerbitzuak intsuldatzeari buruzko arauak onetsi dituen ekainaren 19ko 195/1984 Dekretuan xedaturik dagoenaren arabera, eta guzti horri buruzko erabaki egokia hartu du 1985.eko ekainaren 20an egindako bileran.

Hori dela bide, Autonomi Elkartearen Erakunde Amankomunen eta haren Lurralde Historikoen Foru Organoen arteko harremanei buruzko Legearen lehenengo xedapen iragankorrean xedaturik dagoenarekin bat etorri, Sanitate eta Gizarte eta Segurantza Sailaren foru diputatuak eta Ogasun eta Finantza Sailaren foru

diputatuak batera proposaturik eta Foru Aldundiak eguneko bileran erabaki ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

1go. artikulua.

Adin gutxikoen babes, tutoretza eta birgizartearen arloan

Bizkaiko Lurralde Historikoak dituen eskumenei dagozkien zerbitzu, pertsonal, ondasun, eskubide eta betebeharrak zehaztu dituen Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko Foru Aldundia transferentzietan buruzko batzorde mistoak 1985.eko ekainaren 20ko bileran hartutako erabakia onetsi da.

2. artikulua.

Horren ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoari intsuldatu

zaizkio erabaki horretan aipatzen diren zerbitzuak, bertan agertzen den bezala eta bere ondoriozko baldintzetan, eta baliabide pertsonalak, ondasunak, eskubideak eta betebeharrak erabakiaren eta beroni erantsitako testuan adierazitakoak direla.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Ekainaren 25eko 63/85 DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko Autonomia Erkidegoako Erakunde Erkidegoei Atingabeen Babesaren, Zaintzaren eta Birgizartearen arloko zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa (E.H.A.A., 85-7-18ko eranskina).

3. artikulua.

Intsuldaketa honek batzorde mistoaren erabakian ezarritako egunetik aurrera izango ditu ondoreak.

4. artikulua.

Foru Dekretu hau Bizkaiko Jaurerriko Egunkari Ofizialean argitaratuko da, eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu egokia sartuko da Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian; bi argitarapen horietan argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren Gobernu eta Antoleketari buruzko Foru Arauaren 6.2 b) artikuluan xedaturik dagoenaren kalterik gabe.

Bilbaon, 1985.eko ekainaren 25ean.

Diputatu nagusia,

JOSE MARIA MAKUA ZARANDONA

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA

Sanitate eta Gizarte Urgazpen Saileko foru diputatua,
JOSE I. BARRENETXEA BENGURIA

Foru Dekretua 19850000063 06/25/1985 164 1 07/18/1985 Sanitate eta Gizarte Urgazpen Saila